

ERAKUSKETARAKO
FITXA DIDAKTIKOAK

UN
ETXEA

ASOCIACIÓN
DEL PAÍS VASCO
PARA LA UNESCO.
UNESCO SUSTATZEKO
EUSKAL HERRIKO
ELKARTEA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

MOBILIZATU GIZA ESKUBIDEEN ALDE! MUGI ZAITEZ!





ASOCIACIÓN
DEL PAÍS VASCO
PARA LA UNESCO
UNESCO SUSTATZEKO
EUSKAL HERRIKO
ELKARTEA



© UN Etxea - UNESCO Orako Euskal Herriko elkarte, 2024.

Egilea: Andrea Antúnez, Eva Quiroga, Begoña Guzmán (UN Etxea)

UN Etxea

Isozaki Atea - Bizikidetasun plaza, Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala, Bilbo

Tel.: +34 94 427 64 32

Kontaktua: info@unetxea.org

www.unetxea.org

Itzulpena: Bakun S.L.

Diseinua: Binari Comunicación

Azaleko jatorrizko irudia: “Mobilizatu giza eskubideen alde! Mugi zaitez!” erakusketa,
Ane Pikazaren ilustrazioekin.



Material horrek eta Bizkaia Aniztasunen alde proiektuak Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa dute.

Lan honek lizentzia hau du: Creative Commons. Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-ND 4.0) Lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean komunikatu ahal izango duzu, baldintza hauek betez gero: Lanaren egiletza aitortu behar duzu. Ezin duzu lan hau merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin duzu aldatu, eraldatu edo lan honetatik eratorritako lanik sortu.

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es>

AURKIBIDEA

Sarrera	4
Proposamenaren justifikazioa	5
Dinamizatzaleentzako aurretiazko orientabideak	7
1. jarduera. Giza amaraun bat ehuntzen	8
2. jarduera. Ezkutuko sinbologiaren bila	10
3. jarduera. "Denok gara askotarikoak, denok gara berdinak eskubideetan"	12
4. jarduera. Influncerrak egun batez	14
Bibliografia eta Eranskinak	15

SARRERA

Giza Eskubideak, Bizikidetzeta eta Aniztasuna #StandUp4HumanRights.



Herritarren artean giza eskubideen aldeko ekintza sustatzeko xedea duen Nazio Batuen *#StandUp4humanrights* kanpainari laguntzeko, iragan 2023an *Mobilizatu giza eskubideen alde! Mugi zaitetz!* erakusketa ibiltaria sortu genuen, Ane Pikaza euskal artistak ilustratua.

Erakusketa hori UN Etxea - UNESCOrako Euskal Herriko elkartearen ekimena da, Amesten, Mujeres con Voz eta Naizen elkarteekin lankidetzan. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima

eta Aniztasun Zuzendaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiaren babesa izan zuen.

Giza eskubideak sexu-, kultura- eta funtzio-aniztasunen ikuspegitik sustatzea du helburu, ikusleen konpromisoa eta ekintza sustatuz. Horretarako, zenbait ekintza sortu ditugu, 12 eta 16 urte bitarteko gazteekin hezkuntza formaleko eta ez-formaleko espazioetan lan egiteko. Jarraian aurkeztuko dizkizuegu ekintza horiek.


PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA

Giza eskubideak, bizikidetza eta aniztasunak ikuspegi intersektzionaletik landuko dituzten hezkuntza-baliabideak sortzea da proiektuaren helburua. Hori garrantzitsua da **12-16 urteko** ikasleentzat, gai horiek beren bizitzekin eta esperientziekin nola lotzen diren hobeto ulertzen lagunduko baitie. **Jolasean Oinarritutako Ikaskuntzaren (JOI)** metodologia erabiltzean, gai garrantzitsu horien ikaskuntzan modu aktiboan eta motibatzailean parte hartzeko aukera izango dute. Proposatutako ekin-tzen bidez, **giza eskubideak, bizikidetza eta aniztasuna kontzeptuak** sakon aztertzeko aukera izango dute. **Ezkutuko sinboloak eta esanahiak ikertuko dituzte**, beren aniztasunei buruz hausnartuko dute eta giza eskubideekiko konpromisoen dekalogo bat sortuko dute. Prozesu horri esker, gai horien ulermen sendoagoa eta kritikoagoa garatu ahal izango dute.

Legezko justifikazioari dagokionez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko Lege Organikoaren helburu nagusiak azpimarratu dira: 1. Hezkuntza-sistemaren antolamendua berritzea, 2. **Ekitatea eta inklusioa hobetzea**, 3. Ikasleen emaitzak hobetzea, eta 4. **Guztiontzako kalitatezko hezkuntza ematea**. Era berean, haren printzipio pedagogikoetako batzuk nabarmentzen dira 19. artikuluan: **ANIZTASUNAREN trataera** eta jarraipen **INDIVIDUALIZATUA**, **KONPETENTZIEN** integrazioa: proiektu **ESANGURATSUAK** eta **arazoak elkarlanean konpontzea**, **Hezkuntza emozionala eta baliok**, osasunerako hezkuntza, sormena eta espiritu zientifikoa, konpetentzia digitala, irakurketa, artea, ikus-entzunezkoa, ahozkoa eta idatzizkoa, **garapen jasagarria** eta kontsumo arduratsua.

EAEn, maiatzaren 30eko **77/2023 DEKRETUA** nabarmentzen da, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa, eta haren C) helburua, 7. artikuluan: **c) Genero-berdintasuna baloratzea eta sexu-, genero-, etnia-, arraza-aniztasuna edo gaitasunen arloko aniztasuna errespetatzea**. Gizonen eta emakumeen arteko edonolako diskriminazioa dakarten **estereotipoak errefusatzea**. Sexu- eta ugalketa-**es-kubideak ezagutzea** eta pertsona oro errespetatuz eta norbera zainduz baliatzea.

Aldi berean, [EAE-KO HEZKUNTZA-SISTEMARA-KO II. HEZKIDETZA PLANA, BERDINTASUNAREN ETA TRATU ONAREN BIDEAN \(2019-2023\)](#) eta [haren zutabeak izango dira proposamenak egiteko oinarria.](#) 



77/2023 DEKRETUA, BIGARREN HEZKUNTZA:

KONPETENTZIA espezifikoa eta ebaluazio-irizpideak (adibideak):

8. Egungo kultura anitzeko errealitatea osatu duten prozesu geografikoak, historikoak eta kulturalak **ezagutzea eta ulertzea**, aniztasunaren aberastasuna aintzatetsiz eta berdintasunaren, inklusioaren eta gutxiengoekiko errespetuaren aldeko mugimenduen ekarpena baloratuz, diskriminazio mota oro saihesteko.
- 8.1. Gaur egungo estatu eta hegemonien sorrera eta garapena ezagutzea, Espainiako estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eraketa barne, eta horiek espazioan eta denboran kokatzea, haiek osatu dituzten elementu historiko, kultural, instituzional eta erlijiosoak integratuz, sortutako errealitate multikulturala azalduz eta haien ekarpen garrantzitsuenak identifikatuz.
- 8.2. Jarrera ez-diskriminatzaileak erakustea eta aniztasun soziala eta multikulturala aintzat hartzea, inklusioa, gutxiengo etniko-kulturalen onarpena eta kolaborazioa baloratuz, gizarte-kohesioa bultzatzen duten balio gisa.
- 8.3. Gizonen eta emakumeen benetako berdintasunaren alde argudiatzea, hainbat esparrutan aro garaikidean zehar emakumezko pertsonaia garrantzitsuek egindako ekarpena nabarmenduz eta baloratuz, eta edozein egoeratan generoagatiko edozein jarrera eta portaera diskriminatzailearen aurka jardunez.
9. **Zibilizazioek Historian zehar egin dituzten ekarpen kulturalak, artistikoak, zientifikoak eta pentsamenduzkoak ezagutzea eta balioestea**, Euskal Herriari eta Espainiari arreta berezia eskainiz, mendebaldeko kulturaren erroak eta eraldaketak ulertzeko eta egungo edozein kulturaren adierazpenak errespetatzeko.
- 9.1. Antzinaroko, Erdi Aroko eta Aro Modernoko zibilizazioen ekarpen kulturalak, artistikoak, zientifikoak eta pentsamenduzkoak ezagutzea eta azaltzea, egungo kulturen erroak osatzen dituztenak adieraziz eta elkartasunaren, justiziaren, askatasunaren eta jasangarritasunaren gure kontzeptuarekin lotuz.

ONARRIZKO JAKINTZAK

16. **Emakumeen eta nesken papera** egungo gizarteetan: hezkuntzarako eskubidea, lana eta boterea eskuratzeko aukerak eta haien kontrako diskriminazio-egoerak munduan zehar. Genero-rolak eta horien isla gizartearen eta kulturaren esparru guztietan.*
17. **Nazio Batuen Erakundea eta Garapen Jasangarrirako Helburuak**, egungo munduaren dilemak eta kontraesanak; eta maila pertsonalean, toki-, estatu- eta mundu-mailan horiei aurre egiteko aukerak. Pentsamendu kritikoa iritzi propioak garatzeko abiapuntu gisa.

Konpromiso zibikoa

1. Giza duintasuna eta eskubide unibertsalak. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa.
2. Genero-berdintasuna. Adierazpen eta jokabide ez-sexistak eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista.
3. Toki-ingurunean eta ingurune globalean gaur egun dauden erronken eta arazoen aurrean interesa.
4. Bizikidetzaren zibikoa eta kultura demokratikoa. Gizarte zibilaren kide izatea eta inplikatzeko. Komunitate-proiektuetan parte-hartzea.
5. Ingurumen-kontzientzia. Izaki bizidunen eta planetarenganako errespetua, eta horien babesa eta zaintza.

HASI AURRETIK...

DINAMIZATZAILEENTZAKO AURRETIAZKO ORIENTABIDEAK

Proposamen honen helburua da aniztasuna giza eskubideen ikuspegitik lantzea, kontuan hartuta aniztasunaren ardatz desberdinek guztioi eragiten digutela. Horregatik, honako orientabide hauek proposatzen ditugu, estereotipoetan eta kolektiboen homogeneizazioan ez erortzeko:

- **Sortu espazio segurua.** Dinamizatzaileak espazio seguru bat sortu behar du, pertsona bakoitzak bere iritzia eta esperientziak errespetutik adierazi ahal izateko, epaitua izan gabe. Saioaren hasieran aipatu dezakegu hori, hasiera-hasieratik konfiantza sortzeko.
- **Hizkuntzaren erabilera.** Saioan zehar, erabili hizkuntza inklusiboa eta argia, parte-hartzaileen ulermen-mailara eta esperientzietara egokitua. Ez erabili maskulino generikoa eta saiatu termino neutroak erabiltzen, hala nola "ikasleak", "parte-hartzaileak" eta abar. Era berean, ez erabili etiketa zurrunik. Kontuan hartu pertsona bakoitza bakarra dela, eta aniztasuna kolektibo, kultura edo talde sozial desberdinen barruan ere ematen dela.
- **Sustatu parte-hartzea eta entzute aktiboa.** Dinamiketan, saiatu pertsona guztiek parte hartzeko eta adierazteko aukera izan dezaten; horretarako, bultzatu isiltasuna eta entzute aktiboa taldeko beste kideen artean, taldekideren bat hitz egiten ari den bitartean. Nabarmendu garrantzitsua dela gure ideiak zalantzan jartzea eta etiketatik eta estereotipoetatik harago begiratzen ikastea.
- **Sustatu enpatia.** Ekintzetan, bakoitzaren bestelakotasunetan jarriko dugu arreta, baina baita antzekotasunetan eta batzen gaituzten gauzetan ere. Horrek taldeko pertsonen artean enpatia sortzen lagunduko du, aniztasunaren hainbat ardatzek eragiten digutela ohartuko baitira.

HASIERAKO JARDUERA


- **1. JARDUERA:**
GIZA AMARAUN BAT EHUNTZEN

GARAPENeko JARDUERAK

- **2. JARDUERA:**
EZKUTUKO SINBOLOGIAREN BILA
- **3. JARDUERA:**
"Denok gara askotarikoak, denok gara berdinak ESKUBIDEETAN"

AMAIERAKO JARDUERA

- **4. JARDUERA:**
Influencerrak egun batez



1. JARDUERA: GIZA AMARAUN BAT EHUNTZEN

→ Ikaskuntzaren helburuak

- Giza duintasunari eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei buruzko kontzientzia kritikoa garatzea
- Errespetua, talde-lana eta lankidetzaren sustatzea
- Aniztasunaren hainbat ardatz balioan jartzea



→ Funtsezko konpetentziak

Interesgarria da jardueretan zer deskriptore landu nahi diren zehaztea

I. ERANSKINA - IRTEERA-PROFILA. 

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia → + INFO	
Konpetentzia eleaniztuna → + INFO	
STEM konpetentzia → + INFO	
Konpetentzia digitala → + INFO	
Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa → + INFO	
Herritartasunerako konpetentzia → + INFO	
Ekintzailtza-konpetentzia → + INFO	
Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia → + INFO	

→ Materiala

Artilezko harila (koloretakoa).

→ Ebaluazioa

Hasierako KPSI eta justifikatua Knowledge and Prior Study Inventory (Young & Tamir, 1977). Egin jardueraren hasieran eta amaieran. (1. ERANSKI-NA).

→ Orientabide espezifikoak

1. Talde bakoitzak artilezko haril bat jasoko du. Arduradunak taldeko kide bati botako dio harila, muturrari eutsiz. Kide horrek, aldi berean, beste kide bati botako dio harila, hariari eutsiz. Horrela, kide guztien artean “amaraun” bat sortu arte. Amarauna osatutakoan, hausnarketa sustatzeko galderak egingo zaizkio taldeari:
 - a. Nola sentitzen zarete elkarrekin konektatuta?
 - b. Zer irudikatzen du amaraunak?
 - c. Nola lotzen da hori planetarekin dugun interdependentziarekin?
 - d. Planeta anitza al da? Non ikus dezakegu aniztasun hori?
2. Talde bakoitzak bere gogoetak eta ondorioak partekatuko ditu. Garrantzitsua da ariketa gizatzea eta GIZA ESKUBIDEAK kontuan hartzea.
3. Azkenik, ikasleek amarauna desegino dute, eta haria bilduko dute, atzera ere harila osatzeko. Horrek adierazten du gure ekintza indibidual eta kolektiboek besteei eta planetari eragiten dietela.

→ Aldaketak

Talde handian egitea, txandakatzea, haria erortzen utzi gabe askatzea harila (dinamika kooperatiboa) eta gogoeta egitea.



2. JARDUERA: EZKUTUKO SINBOLOGIAREN BILA

→ Ikaskuntzaren helburuak

- Aniztasuna irudikatzen duten ezkutuko sinbo-
loak aurkitzea erakusketan
- Pentsamendu kritikoa eta aniztasunetikiko
errespetua sustatzea
- XXI. mendeko erronkei gizarte gisa heldu ahal
izateko tresnak ematea



→ Funtsezko konpetentziak

Interesgarria da jardueretan zer deskriptore landu nahi diren zehaztea

I. ERANSKINA - IRTEERA-PROFILA.

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia → + INFO	
Konpetentzia eleaniztuna → + INFO	
STEM konpetentzia → + INFO	
Konpetentzia digitala → + INFO	
Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa → + INFO	
Herritartasunerako konpetentzia → + INFO	
Ekintzailtza-konpetentzia → + INFO	
Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia → + INFO	


→ Jolasaren testuingurua:

Gizarteak aniztasunarekiko lotura galdu du, pista sinbolikoak ebatzi beharko ditugu oreka hori berrezartzeko.

“KULTURA ABERASTASUNAREN BILA”:

1. **Misioaren hasiera:** Ikasleak taldetan banatuko dira eta mapa sinboliko bat emango zaie (fitxa). Mapa horretan, erakusketaren eremuetara eramango dituzten pista egongo dira. Han, aniztasunarekin lotutako sinboloak aurkitu beharko dituzte.

1. MAILA: IRUDIAK



ZER ESAN NAHI DU BAKOITZAK - ZER USTE DUGU ETA ZER DA? LAGUNTZA ESKAINTZEA

2. MAILA: IDATZIZKO PISTAK

- **1. PISTA:** identifikatu koloreak
- **2. PISTA:** identifikatu hitzak
- **3. PISTA:** identifikatu aktoreak
- **4. PISTA:** zer hizkuntza ikus dezakezu?

TALDEKATZEAK:

BANAKAKOAK ETA TALDE KOOPERATIBOAK

2. **Informazioa biltzea:** talde bakoitza taldetan eta rolen arabera banatuko da:

- **Bideratzailea:**
Taldea gidatu eta denek parte hartuko dutela ziurtatuko du.
- **Erregistratzailea:**
Taldearen ideiei eta ondorioei buruzko oharrrak hartuko ditu.
- **Aurkezlea:**
Gogoetak partekatzeko prestatzen da
- **Kritikoa:**
Taldeari aipatutakoari buruzko galderak planteatzen ditu

Talde bakoitzak **oharrak** idatzi behar ditu behatutako sinboloek aniztasunaren alderdiak nola adierazten dituzten azalduz. Islatu oharrak gure “horma-irudian” (erabili testuingurura ondoen egokitzen den formatua). Gure batzarra: Taldeek kideei aurkeztuko dizkiete horma-irudiak, eta gogoeta bateratua egingo dugu (gizartean aniztasuna dagoela aitortzeak eta hura baloratzeak zer-nolako garrantzia duen eztabaidatuko dugu).

→ Ebaluazio figuroanalogikoa:

Ebaluazio figuroanalogikoak irudiak erabiltzen ditu ikasleen pentsamendu analogikoa bultzatzeko, loturak eta konparazioak bilatuz irudi horien eta ikaskuntza-jardueraren batean duten jardunaren artean, bai eta pentsamendu kritikoa, gogoetsua eta sortzailea sustatuz ere; halaber, pertsona bakoitzak, proposamen guztien artean irudi bat aukeratzean, horretarako arrazoiak argudiatzeko gaitasuna ere bultzatzen du. (2. [ERANSKINA](#)).



3. JARDUERA: “DENOK GARA ASKOTARIKOAK, DENOK GARA BERDINAK ESKUBIDEETAN”

Aniztasunei buruzko hausnarketa, hitz-joko baten bidez.

→ Ikaskuntzaren helburuak

- Parte-hartzaileen parte-hartzea eta lankidetzia sustatzea.
- Aniztasunaren trataerak zer-nolako garrantzia duen transmititzea.
- Aniztasuna balioestea, aberastu egiten gaituen elementua den aldetik.
- Giza eskubideak eta aukera-berdintasuna hur-biltzea.



→ Funtsezko konpetentziak

Interesgarria da jardueretan zer deskriptore landu nahi diren zehaztea
I. ERANSKINA - IRTEERA-PROFILA. 

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia → + INFO	
Konpetentzia eleaniztuna → + INFO	
STEM konpetentzia → + INFO	
Konpetentzia digitala → + INFO	
Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa → + INFO	
Herritartasunerako konpetentzia → + INFO	
Ekintzailertza-konpetentzia → + INFO	
Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia → + INFO	

→ Materiala

Triptikoak. 

→ Norberarentzako jarraibideak/lan autonomoa:

Eman talde bakoitzari lan-orri bat, jarraibide hauekin (sortu fitxa):

- **Zerk egiten zaitu desberdin eta berezi?** Pentsatu hori deskribatzen duten 3 hitz.
- Gero, pentsatu 3 hitz zure taldekideekin zertan zaren **berdina** deskribatzen dutenak.
- Eztabaidatu taldean eta saiatu hitzen artean **antzekotasunak eta desberdintasunak aurkitzen**.
- Marraztu zure erretratua triptikoan. Zer moduz ikusten zara?
- Amaitzeko, eskatu talde bakoitzari bere gogoe-tak klasearekin partekatzeko. Bultzatu taldeko eztabaida jarduera egitean aniztasunari eta berdintasunari lotuta sortutako gaiei buruz.



4. JARDUERA: INFLUENCERRAK EGUN BATEZ

→ Ikaskuntzaren helburuak

- Teoriaren eta praktikaren arteko loturak egitea
- Ikuspegi intersektionala sustatzea
- berdintasuna eta giza eskubideak zabaltzeko baliabideak gaitzea



→ Funtsezko konpetentziak

Interesgarria da jardueretan zer deskriptore landu nahi diren zehaztea

I. ERANSKINA - IRTEERA-PROFILA. 

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia → + INFO	
Konpetentzia eleaniztuna → + INFO	
STEM konpetentzia → + INFO	
Konpetentzia digitala → + INFO	
Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa → + INFO	
Herritartasunerako konpetentzia → + INFO	
Ekintzailtza-konpetentzia → + INFO	
Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia → + INFO	

→ Materiala

Irakasleentzako berrikusteko galdetegia (Mentimeter, Quizizz, Quizlet)

Gero **dekalogo bat sortzea** proposatuko da, parte hartu duten pertsona guztien giza eskubideetako konpromisoekin. Horrela, ikasleek eta ikaste-

txeak bere sare sozialetan partekatu ahal izango dute emaitza traola hauek erabiliz: #StandUp4HumanRights #BizkaiaAniztasunenAlde #Bizkaia-porlasDiversidades Gainera, Nazio Batuen #StandUp4HumanRights kanpaina globalari egindako ekarpena ere izango da.

BIBLIOGRAFIA ERANSKINAK

BIBLIOGRAFIA

- Eusko Jaurlaritza (2019) Berdintasunerako eta tratu onerako bidean, Euskal Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetza Plana 2019-2023.
- Eusko Jaurlaritza (2019) Eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana. 2019-2022.
- Eusko Jaurlaritza (2020) Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleekin esku hartzeko proposamen inklusiboak.
- UNESCO (2021). Elkarrekin irudikatu gure etorkizunak: hezkuntzarako kontratu sozial berri bat. Hezkuntzaren etorkizunari buruzko nazioarteko batzordearen txostena.
- UNESCO (2023). Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren eta munduko herritartasunerako hezkuntzaren egungo egoera.
- Bizikasigune (2023).
- Curriculumgunea (2023).
- UNESCO (2023) Kultura eta hezkuntza.

1. ERANSKINA: KPSI TAULA


Zer dakizu?	HASIERAKOKPSI			KPSI JUSTIFIKATUA		
	Ez dakit	Ezaguna egiten zait	Azaldu dezaket	Ez dakit	Ezaguna egiten zait	Azaldu dezaket
Aniztasuna						

2. ERANSKINA: ZER MODUZ ZAUDE?

egin gogoeta



3. ERANSKINA: FITXAK ETA IRUDIAK



4. ERANSKINA: TRIPTIKOA. ERANSKINA INPRIMATU



